

# 6

## Ekina baragarria da! Badozak hamabost urte Arratiako ikastetxeetan normalkuntza proiektuak abian direla

**Jasone Aldekoa**

*Irakaslea*

[jasonealdekoa@gmail.com](mailto:jasonealdekoa@gmail.com)

Sarrera-data: 2011-10-23 | Onartze-data: 2011-12-22

**Laburpena.** Arratiako hamaika ikastetxeek azken hamabost urteetan hizkuntza normalkuntza proiektuak garatzen dabilta –Eusko Jaurlaritzako Ulibarri programaren baitan bertako ikasle-jendeak euskara ikasi ez ezik, auzoan eta kalean euskaraz gehiago egin dezan, eroso eta natural, euskararen normalizazioari ekarpena egin nahirik. Horretarako, Peter Sengek eraldatze prozesuen azterketarako proposatu duen hamar erronken eredu oinarri eta Urtxi Barrenetxeak eredu horren egin duen moldaketaz baliatu da egilea. Funtsa horrekin, Arratiako ikastetxeek elkarlanean eta inguruko kultur eragileen laguntzarekin zer-nolako erantzuna ematen ari diren azaldu eta, aldi berean, hausnarketari eta emaitzen balioespenari ekiten zaie. • **Hitz-gakoak:** *hizkuntza-plangintza, hizkuntza-normalkuntza, kalitatezko hezkuntza, hezkuntza-komunitate.*

**Abstract.** *Keep at it! Fifteen years have passed since the start of the projects aimed at bringing about Basque normalisation in the schools of Arratia.* Over the last fifteen years eleven schools in Arratia have been working on projects to do with Basque language normalisation –within the Ulibarri programme of the Government of the Basque Autonomous Community (region). They are designed to encourage the local students and inhabitants not only to study Basque, but also to encourage greater Basque use in the neighbourhoods and streets in a relaxed, natural way in a bid to contribute towards the normalisation of the language. So the author has used the model of Peter Senge’s ten challenges proposed for analysing transformation processes as the basis, plus the adaptation that Urtxi Barrenetxea has made of this model. So on this basis, an explanation is given as to what response is being given by the schools in Arratia in collaboration with each other and with the help of local cultural players and, at the same time, a reflection and an assessment of the results is made.

• **Key words:** *language planning, language normalisation, quality education, education community.*

## ATARIKOA

**I** Arratia eskualdeko hamaika ikastetxeek azken hamabost urteetan hizkuntza normalkuntza proiektuak garatzen dabilta. Ikastetxeetako hizkuntza normalkuntza proiektuak hizkuntza-plangintza mota bat dira; ez dira sortu gizarte osoko errealtate soziolinguistikoa eraldatzeko xedearekin, bertako ikasle-jendeak euskara ikasi ez ezik, auzoan eta kalean mintzajardun arruntean ere eroso eta natural euskaraz egin dezan baizik.

Ikastetxeetako normalkuntza proiektuak ez dira goizetik gauera sortu. 10/ 1982ko, azaroaren 24ko, Oinarrizko legeaz geroztik, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak EAEko hizkuntza-politikaren baitan, euskararen normalizazioa hezkuntzaren bidez garatzen duen prozesu orokorrago baten barruan euskara gutxi edo ez erabiltzeari aurre egiteko 1996an abian jarri zituen beren-beregiko hizkuntza-plangintzak dira. Horren harira dator, Ulibarri Programako normalkuntza proiektuen nondik norakoak sakon aztertzeke nahitaezkoa izatea, plangintzaren goitik beherako ibilbidea zein behetik gorako erantzuna kontuan hartzea.

Nolanahi ere, hemen ez dugu euskararen normalizazioak EAEko hezkuntzan jarraitu duen bilakaera aztertuko. Lerro hauetara euskararen arnaguneen aldarria ekarri nahi dugunez, Arratiara mugatuko gara. Artikuluaren zati nagusian bertako ikastetxeek, inguruko kultur eragileen laguntzarekin, normalizazioari eman dioten behetik gorako erantzuna nabarmendu nahi da. Horretarako, Peter Sengek (1999) eta Urtxi Barrenetxeak (2010) eraldatze prozesuen azterketarako proposatzen duten hamar erronken eredian oinarrituta, Arratiako ikastetxeek nolako erantzuna ematen diegun erronka horiei azaltzen da, ibilbidean sortutako adibideekin hornituz.

## EUSKARA HEZKUNTZAN

**I** Badira dozena bat urte Arratiako ikastetxe guztiak euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko ahalegin sistematiko eta jarraikakoetan dihardutela. Normalkuntza proiektuak hizkuntza-plangintzak dira. Ikastetxeetako hezkuntza-komunitate osoaren euskararen erabilera bultzatu eta bermatu nahi duten eginkizunak, hain zuzen ere. Izan ere, plan horiek, Ulibarri Programaren baitan, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak proposatutakoak eta ikastetxeetako Ordezkatze Organo Gorenek, dagokien legez, onartuak daude.

Euskararen normalizazioaren abiapuntua azaroaren 24ko 10/1982ko euskararen erabilera arautzeko legean dagoela esan dugu dagoeneko.

---

***Ikastetxeetako normalkuntza proiektuak euskararen normalizazioa hezkuntzaren bidez garatzen duen prozesu orokorrago baten barruan euskara gutxi edo ez erabiltzeari aurre egiteko 1996an abian jarri zituen beren-beregiko hizkuntza-plangintzak dira.***

**Batetik,  
ikastetxeek  
kalitatezko  
hezkuntza  
euskaraz  
bermatu dute,  
eta, bestetik,  
gurasoek horren  
alde egin dute,  
euskaraz ikastea  
beren umeentzat  
mesedegarria  
dela ikusi  
dutelako.**


Ordutik hona hizkuntza-plangintzaren goitik beherako garapenak gorespen ugari jaso ditu. Bestela esanda, herri-aginteez hartutako neurriak, onetsitako lege-arauak edo jarritako baliabideak, besteak beste, oso balorazio onak hartu dituzte (Grin & Vaillancourt, 1999; Mercator-Education, 2005). Dakitenek eta Europako herrialde ugartik gure hezkuntza-sistema eta hizkuntza-plangintzak aztertzerako datozenez harriduraz nabarmentzen dituzten horietako lorpen bi baino ez ditugu hemen aipatu: irakasle-jendeak egin duen ibilbidea eta ikastetxeetako bezeriak bizi izan duen bilakaera.

Zalantzarik gabe bi izan dira bilakabide hori ahalbidetu duten giltzak: lehena, azken hogeitaka urteotan ikastetxeetan lanean dabiltzan irakasleek egindako behar guztia. Bigarrena, eta bestea bezain garrantzitsua, euskal gizarteak egindako eskaera eta gure eskolen emarietan erakutsitako konfiantza. Izan ere, edozein plangintzak bezala, euskararen normalizazioak hezkuntzan aurrera egiteko bi norabideko zirkulazioa behar izan du. Batetik, ikastetxeek kalitatezko hezkuntza euskaraz bermatu dute, eta, bestetik, gurasoek horren alde egin dute, euskaraz ikastea beren umeentzat mesedegarria dela ikusi dutelako.

Argi eta garbi, irakasleek euskaraz kalitatezko hezkuntza bermatu dutelako funtzionatu du sistemak. Eskainitako kalitate horren ondorio dira, besteak beste, gure ikasleek estatu zein Europako probetan lortutako emaitzak (Cenoz, 2009; Eusko Jaurlaritzak, 2005a).

Ondorioz, adin batetik beherako populazioaren ehuneko handi batek euskaraz jakitea lortu du. Ikus bestela 2006ko IV. Mapa Soziolinguistikoa bildutako datuak (Eusko Jaurlaritzak, 2005b, 2009a).

**1. Irudia: 2006an EAEko hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. Iturria: Eusko Jaurlaritzak, 2009a**



Ezagutzak, ordea, ez du erabilera bermatzen; bestela esanda, euskaraz jakiteak ez du ziurtatzen euskaraz berba egingo dela, kale-erabileraren neurketek erakusten digutenez (Isasi, 2007). Horregatik, 1996an hasita, ikastetxeetako normalkuntza proiektuek, xede hori bera hartu dute euren gain, euskararen ezagutza errotzen jarraituz, erabilera sustatzea, hain zuzen ere.

## ZERTAZ ARI GARA EUSKARAREN ERABILERA DIOGUNEAN?

### I

Labur esanda, laburregi behar bada, euskararen erabilera diogunean, egunero gure ohiko jardunean, ahoz zein idatziz egiten dugun euskararen aprobeixamenduaz ari gara. Esaterako, irrati, telebista, liburu edo aldizkarietatik jasotzen dugun hizkuntza inputa, euskaraz diren kultur eskaintzen kontsumoa edota auzoan, lanean eta jolasean dihardugunean egiten duguna.

Ikastetxeetako normalkuntza proiektuak, arestian esan dugunez, bertako hezkuntza-komunitateko kideen artean, ikasle, guraso, irakasle, jantokietako langile eta begiraleen artean, besteak beste, euskararen erabilera babestu, indartu eta zabaltzea du helburu.

Edonola ere, ezin espero daiteke ikastetxeak herriko egoera soziolinguistikoko osoa, goitik behera, eraldatzea; ikastetxeak nahi duena da eskolako errealitatea, ikaslea inguratzen duen eguneroko jarduna, ahalik eta euskaldunena bihurtzea, batik bat, gure ikasleak hiztun gaituak izan daitezen (Esnaola, 2003). Horregatik dauka eskolak duen garrantzia euskararen normalizazioan.

## 15 urteko ahaleginak egin ondoren, zer ari gara lortzen?

Hamabost urteotan hamaika gauza ikasi ditugu! Lorpenak aipatzeak, ordea, prozesu osoa baloratu beharra dakar, eta hori ezin daiteke bat-batean egin, ezin daiteke begiz jo. Horretarako ezinbestean behar da prozedura bat, eta, guk idazki honetarako bidaide dugun Urtzi Barrenetxeak irekitako bideari jarraitu nahi diogu.

Barrenetxeak (2010), Peter Sengeren eredu (Senge, Kleiner, Roberts, Ross, Roth & Smith, 1999) hizkuntza-plangintzen azterketari egokitu zionean, hizkuntza-planek garapen-bidean aurkitzen dituzten hamar erronka azaldu zituen. Guk ere, beraz, erronka horien erreferentzia erabiliko dugu Arratiako ikastetxeek elkarlanaren eta sormenaren bitartez erronkak zelan gainditu dituzten laburbiltzeko.

---

***Ikastetxeetako normalkuntza proiektuak bertako hezkuntza-komunitateko kideen artean, ikasle, guraso, irakasle, jantokietako langile eta begiraleen artean, besteak beste, euskararen erabilera babestu, indartu eta zabaltzea du helburu.***

**Arratiako ikastetxeen artean sortutako lan taldea da, batez ere, bertako ikastetxeen eragilea, elkarlana zein elkarri laguntzeko bideak eta baliabideak diseinatzeko, jorratzeko, lantzeko eta zabaltzeko sustatzailea.**

### **1. Denboraren kontrolaren erronka. “Ez daukagu horretarako astirik.”**

Plana bera proposatzeak, diseinatzeak, ikastetxean zabaltzeak, kideen artean dinamizatzeak lan karga handia suposatzen du. Hamabost urtean epe ertaineko hiru plangintza gutxienez bete ditu ikastetxe bakoitzak; horrek dakarren ardura, lan zama eta kudeaketarako ataza guztiekin.

Ondorioz, ziurtasun osoz esan genezake prozeduraren bizkarrezurra sendo errotuta dagoela bertako ikastetxeetan.

### **2. Entrenamendu, gida eta laguntza koherente, kompetente eta jarraituaren erronka. “Ez daugaku laguntzarik.”**

Erronka honi buruz luze eta zabal idatz daiteke. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, Ulibarri Programako deialdiaren bidez, bideratu du normalkuntza proiektuak garatzeko aholkularitza eta laguntza sistema. Hori Ulibarri Programan barruan dabilzan Euskal Herriko ikastetxe guztien sarea sortzeko lagungarria izan bada ere, Arratiako ikastetxeen artean sortutako lan taldea da, batez ere, bertako ikastetxeen eragilea, elkarlana zein elkarri laguntzeko bideak eta baliabideak diseinatzeko, jorratzeko, lantzeko eta zabaltzeko sustatzailea.

Lan talde honetan ikastetxe guztietako kideak daude, berdin ikastetxeko normalkuntza teknikaria, ikastetxeko zuzendaria edo beste irakasleren bat. Hauexek osatzen dute entrenamendu, gida eta laguntza jarraituaren erdigunea edo bihotza. Horiekin batera Gorbeialde Alkartea, Zertu, Begitu, B06 Berritzegunea eta herrietako udal zein kultur eragileak ere taldeko kide esanguratsuak dira prozesu osoan.

### **2. irudia: Arratiako lan-taldearen ikurra**



Elkarlan horri esker landutako ekimen batzuk aipatuko ditut hemen, jakinda ez direla denak ezta garrantzitsuenak ere. Egileek 2007ko urriaren 2an, Europa Jauregian, Eskola Hiztun Bila XI. Jardunaldietan (Eusko Jaur-laritz, 2007b) aipatu zituztenak ekarriko ditut orain gogora, hala nola:

- 2000-2001ean hasitako *Geroa ereiten* ekimena.
- 2001-2003: *Arratiatik Europara* proiektua.
- 2003-2004 ikasturtean Diman antolatutako “*Herririk herri - euskararen lurra jorratuz*” jardunaldiak
- Begitu-Arrana-Txilina- prentsa idatzia denon eskutan.  
AK 37 musika diskoak.
- *Herririk herri: Mariren erreinua* CDa. Gorbeialde inguruko herrien deskripzioa eta jokoak.
- *Mariren urratsen atzetik* ariketa liburua.
- *Berbategia* proiektua.

**3. irudia: 2007ko Eskola Hiztun Bila Jardunaldietan eskualdeko lanak biltzeko kartela**



**Horiekin batera Gorbeialde Alkartea, Zertu, Begitu, B06 Berritzegunea eta herrietako udal zein kultur eragileak ere taldeko kide esanguratsuak dira prozesu osoan.**

---

**Ikastetxe  
bakoitzeko  
ordezkariak bere  
espezialitate,  
afizio eta  
gaitasunak ditu.  
Bakarka ez  
ginateke urrun  
helduko, baina  
denon artean,  
bakoitzak bere  
ahalmenak  
besteen  
zerbitzura  
jarrita, talde  
sendo eta ondo  
prestaturatu osatzen  
dugu.**

Ikastetxe bakoitzak bere ikasle, irakasle, langile eta gurasoekin egiten du lan, baina denek batera Arratia osoari begira egiten dituzte ekarpenak. Lortutakoarekin harro egoteko moduan daude bertako kideak.

**3. Desegokitasuna definitzearen erronka.** *“Hau ez da egokia.”* Normalkuntza planen oinarrietan eta gidaritzan hizkuntza gutxituak indarberritzeko ezinbestekoa izan den Soziolinguistika dago. Zientzia bera, beste batzuekin alderatuta, nahiko berria da, eta horrez gain, irakasleok gure ikasketetan ez dugu horren inguruko prestakuntzarik jaso. Gainera, ez da erraza gure inguruan adituak bilatzea, eta, oraindik gaxagoa egiten zaigu gure helburua betetzeko zer egin behar den esatera ausartzen direnak aurkitzea. Beraz, geuri dagokigu bidea egitea; batzuetan entsegu eta erroreen bidez egokitasuna eta desegokitasunaren arteko aldea bereiziz; beste batzuetan, ordea, beste eskualdeetako adibideak gurera egokituz.

Ikasleekiko lanak (Hornberger, 2003; Ruiz-Bikandi, 1997, 2000), gainera, beste bi zientzien gidaritzak eskatzen du derrigorrez: Hizkuntzalariaren eta Hizkuntzen Didaktikarena. Aipatutako epean Arratiako ikastetxeetan eta aretoetan hainbat ikastaro, hitzaldi eta berrikuntza esperientzia gauzatu dira, betiere irakasle, ikasle eta gurasoen sentsibilitatea eta prestakuntzan aurrerapausoak eman ditzagun eta egiten dugun horren egokitasunaz ziurrago izan gaitezen.

Nolanahi ere, ikastetxe bakoitzeko ordezkariak bere espezialitate, afizio eta gaitasunak ditu. Bakarka ez ginateke urrun helduko, baina denon artean, bakoitzak bere ahalmenak besteen zerbitzura jarrita, talde sendo eta ondo prestaturatu osatzen dugu. Arratiako ikastetxeetako ordezkarien taldeak bere nortasuna lortu du eta kide garen guztioi laguntza, esperientzia trukea eta prestakuntzarako aukera ugari eskaintzen dizkigu. Aldez aurretik guretzat ahuleziaren iturri ziren arloak, taldean indargune bihurtu zaizkigu; elkarren laguntzaz hizkuntza-plangintzaren inguruko aditu bihurtzen ari gara eta denon artean arloari buruzko ezagutza eraikitzea lortu dugu.

Taldearen babesa, norbanakoaren esperientzia eta prestakuntzari esker ikastetxeetako ordezkariak kapaz izan dira normalizazio planak zabaltzeko, dinamizatzeko eta kideen arteko hausnarketa eta adostasunak aurrera ateratzeko.

**4. Kudeaketa argi eta kontsekuentearen erronka.** *“Ez dute esandakoa betetzen.”* Gure ikastetxeetan zerbait ondo zaindu bada normalkuntza proiektuan ezarritako helburuen kudeaketa izan da. Ezelako zalantzarik

gabe ikastetxe guztietako zuzendaritza, irakasle eta gurasoek, eta hein handi batean ikasleek ere, ziurtatu dute denek batera gai direla euskararen ezagutza eta erabileraren aldeko ahaleginak egitea.

#### 4. irudia: Ulibarri Programaren ikurra



Hiru dira normalizazio proiektuaren kudeaketan ezinbestekoak izan diren lanabesak, hala nola:

*Programaren markoa:* Normalkuntza proiektua, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, 1996tik aurrera bultzatzen duen Ulibarri Programa (ikus 323/2003 DEKRETUA). Hasierako deialditik aurrera, Euskara Zerbitzua beste hainbat eragileren laguntzaz –UEU, Ikastolen Elkarte, Soziolinguistika Klusterra edo Mondragon Unibertsitatea, besteak beste– programa egituratzen eta kudeaketa sistematizatzeko bitartekoak jartzen ahalegindu da. Izan ere, egindako lanak etekinak eman ditu; 2000-2001 ikasturtez geroztik ikastetxe bakoitzak bere diagnosiak, proiektuak, urtez urteko planak, memoriak eta bidean osatutako beste hainbat dokumentu eta baliabide txukun eta zehatz metatu ditu [www.ulibarri.info](http://www.ulibarri.info) web gunean. Txoko horren sorrerak ate ugari ireki dizkie ikastetxeei. Batetik, barrura begira progresioa aztertzeke eta propektzioa egiteko funtsezko erreminta bihurtu zaie; bestetik, kanpora begira berdin harreman sarea eraikitzeke zein komunikazio plana gauzatzeko bitarteko garrantzitsua dute.

Hona hemen Lekandape ikastetxeak, beste ikastetxe guztiek bezalaxe, duen dokumentazioaren bilakaera. Diagnosi tresnak, lortutako emaitzak, epe ertaineko proiektuak, urtez urteko planak eta memoriak zein beste hainbat fitxategi.

#### 5. irudia: Lekandape ikastetxeko fitxategien bilduma Ulibarri programako web gunean



**Gure ikastetxeetan zerbait ondo zaindu bada normalkuntza proiektuan ezarritako helburuen kudeaketa izan da.**



**Ikastetxean  
egitura sendoa  
eraikita egoteak,  
bestalde,  
proiektuaren  
kudeaketa ez  
ezik,  
proiektuaren  
jarraipena ere  
errazten du.**



*Ikastetxean eraikitako egitura.* Ikastetxe bakoitzean normalkuntza teknikaria deitzen diogun arduradun bat dago. Arduradun hori etengabeko harremanetan dago ikastetxeko Normalkuntza Batzordearekin, zeinek ikastetxeko komunitate osoaren ordezkariak dituen –ikasle, guraso, irakasle, langile– eta normalkuntza planaren gauzatze prozesua egiten duen. Izan ere, normalkuntza batzordeko kideen bidez modu erraz eta sistematiko batean ikastetxeko edozein gune zein txokotara heltzen dira eginkizunak.

Ikastetxean egitura sendoa eraikita egoteak, bestalde, proiektuaren kudeaketa ez ezik, proiektuaren jarraipena ere errazten du. Ikastetxeak ez dira lau hormako eraikinak, askotariko kidez osatutako elkarteak dira: rol, funtzio, adin eta zeregin ezberdinak biltzen dituen *ekosistemak* dira. Bizitzako hainbat arlotan bezalaxe, ikastetxeetan aldaketak eta gorabeherak gertatzen dira, momentu indartsuagoak eta ahulagoak, larrialdiak eta gaixoaldiak. Larrialdi horietan, batik bat, egitura sendoa izateak asko laguntzen du eta proiektuari tinko eusten dio. Behin baino gehiagotan ikusi izan dugu, eta hainbat adibide jar genitzake, aldi gorabeheratsuetan ikastetxeko egiturak zelan eutsi dion egoerari, eta, sasoi hobeak heltzean ezinkizunak zelan eginkizun bihurtu dituen.

*Eskualdeko elkarlanerako egitura.* Ikastetxearen gainetik beste hurbileko egitura bat sortuta egoteak energia iturri berria dakarkio proiektuari. Guk badakigu ikastetxearen zereginak berebiziko garrantzia duela, alabaina gure eragina eskola eremu eta orduetara mugatzen denez, eskolaz kanpoko eremura heltzeko ezinbestean behar dugu gainerako eragileen laguntza eta elkarlana, esaterako, guraso elkarteena, Gorbeialde Alkartearena, Zertu Kultur Elkartearena, udalena edo Berritzegunearena, besteak beste.

Horrenbestez, guztiz gatoz bat Euskararen Aholku Batzordeak euskararen arnaguneak aipatzean azpimarratzen duen elkarlanaren garrantziarekin:

Eremu honetan, bestalde, oso da garrantzitsua herri-aginteen eta gizarte mugimenduen arteko lankidetzak, euskararen aldeko konpromisoaren kontzientzia soziala edo kultura kolektiboa hedatzeari begira (2009: 47).

Bat gatoz baita proposatzen duen osagarritasunaren printzipioarekin ere:

Lankidetzaren bermatu beharra dago, beraz, alde bietatik, eta, horretarako, ezinbesteko abiapuntua da euskalgintza guztien (instituzionala, soziala, politikoa, kulturala) zeregina elkarri aitortzea eta errespetatzea. Denak dira euskalgintza, den-denak dira beharrezkoak (2009: 37).

Edonola ere, elkarlanean aritzeak ataza gehigarriak dakartza, organizazio mota ezberdinak direnetan, batez ere; beraz, gurean bidearen hasiera egina egon arren, badaukagu oraindik nondik ibili.

**5. Beldurraren eta kezkaen erronka.** “*Gauza berri hauek ikastea da...*” Hizkuntza gaietara denok gara oso sentiberak. Hizkuntza ez da soilik komunikazio tresna; hizkuntzak kultura osoaren arrastoak metatzen ditu, eta, gainera, gutariko bakoitzak daukagun hizkuntza bakoitzarekiko lotura afektibo, aurreiritzi, jakite maila ezberdinak sortu eta lortu ditugu. Halaber, euskara bezalako hizkuntza gutxituez ari garenean, beste hainbat esanahi edo balentzia hartzen du gaiak.

Ikastetxeetako normalkuntza proiektuaren diseinuan zein garapenean kontu handiz jarduten dugu, hezkuntza komunitateko kideek proiektuaren inguruko beldurrak edo aurreiritziak uxatu ditzaten. Familietako hizkuntza guztiak errespetuz hartu eta onartzen ditugu, ikasle zein irakasle bakoitzaren eta guztien atxikimendua lortzea baita gure azken xedea. Izan ere, eraldaketa prozesuetan norbanakoaren eta taldearen posizionamendua eraldatu behar bada, ezinbestekoa da kide bakoitza zein talde osoa aintzat hartzea.

Erronka horri aurre egiteko bi gako daude gutxienez. Bata, ikaste-txean normalkuntza proiektuaren hedapena edo komunikazio-plana egitea; ahal dela, hezkuntza komunitateko kide guztiek proiektuaren nondik norakoak ezagutu eta ekarpenak edo kritikak, kezka edo proposamenak nola egin jakin dezaten. Bestea, aurrekoa bezain erabakigarria, normalkuntza arduradunen zintzotasuna da. Zintzotasuna diogunean eguneroko jarduna betetzean ondo jokatzea adierazi nahi da; hau da, egiten dena egiten dela, beti, eskola-elkarteko kide guztien onura bilatzea.

Dagoeneko aipatu denez, euskal ereduak aurrera egin dute ikastetxeetan kalitatezko hezkuntza irakatsi delako, eta, bezeriak –gurasoek– euskaraz ikasteak onurak baino ez dakartzala ikusita, horren hautua egiten jarraitu duelako. Modu berean jokatu beharko genuke normalkuntza proiektuetan. Ikastetxeetako eskola-elkartek borondatez hartzen

**Ikastetxeetako normalkuntza proiektuaren diseinuan zein garapenean kontu handiz jarduten dugu, hezkuntza komunitateko kideek proiektuaren inguruko beldurrak edo aurreiritziak uxatu ditzaten. Familietako hizkuntza guztiak errespetuz hartu eta onartzen ditugu, ikasle zein irakasle bakoitzaren eta guztien atxikimendua lortzea baita gure azken xedea.**

**Ez gara ari beste  
hizkuntzen  
aurka, ezta  
gutxiago ere;  
hizkuntza  
ofizialen  
erabilera eta  
kontsumoa  
orekatzen  
aldekoak gara,  
eta horretarako  
beste hizkuntzen  
laguntza  
ezinbestekoa  
dugu hainbat  
adituk dioen  
bezala.**

du parte bertan, horregatik ikastetxeoi dagokigu kide guztien hobe beharrez aritzea. Ez gara ari beste hizkuntzen aurka, ezta gutxiago ere; hizkuntza ofizialen erabilera eta kontsumoa orekatzen aldekoak gara, eta horretarako beste hizkuntzen laguntza ezinbestekoa dugu hainbat adituk dioen bezala (Cummins, 2000, 2009).

**6. Bilakaeraren ebaluazio ezkorren erronka. “Honek ez du funtzionatzen”.** Guk ere sarri egin dugu topo ebaluazio ezkorren harrarekin. Arestian aipatu dugunez hizkuntzen indarberitze prozesuak ez dira gauetik goizera egiten, euskararena ez behintzat (Azurmendi, Bachoc & Zabaleta, 2001; Azurmendi & Martinez de Luna, 2006; Fishman, 1991, 2001; Zalbide, 2007, 2010). Gure artean sarri esaten dugu normalizazioa maratoia bezalako lasterketa dela: batzuk formula 1eko autoarekin eta beste batzuk koxuka. Edonola ere, euskararen erabilera luze-zabalean hedatzeko nahitaezkoa da denok helmugara heltzea.

Hizkuntza gutxituaren erabilera aurrera egiteak, gainera, paradoxa askorekin egiten du topo; eta, erabilera beti dago ezagutzari erlatiboki lotuta. Esaterako, euskara kide gutxiak dakien tokietan ia-ia ez da entzuten, eta, eremu geografiko horietan hiztun gutxi batzuk euskaraz entzutea lorpen handitzat jotzen da; ordea, populazioaren proportzio esanguratsuak euskara darabilenean, demagun %38k, zaila egiten zaigu aurrera edo atzera egiten ari garen jakitea. Beste muturrean, berriz, biztanleriaren ehuneko handia euskalduna denean eta oraindik proportzio handiagoetan erabiltzen denean, demagun %70ean, indizeetan aurrera egitea askoz ere nekezagoa da. Azken kasu horretan derrigorrez behar ditugu estrategia, bitarteko eta bide berriak bai euskararen erabilera suspertzeko bai neurketak eta diagnosiak zehatzago egin ahal izateko.

Arratiako ikastetxe gehienek kasua dugu azken hori; ikastetxe barruetan kideen arteko erabilera indizeak altuak dira, baina zelan ziurtatu hizkuntzaren erregistro guztietan hiztun gaituak gara? Zelan landu eskolaz kanpoko jardueretan ere kalitatezko euskara, *euskara ona* esaten zaion hori, darabilgula? Zelan bermatu bertako euskalkian ere ahoz zein idatziz komunikatzeko gai gara? Zelan segurtatu gure herrietako hizkuntza-aldaeretan gordetzen den kultura-altorra bizirik mantentzen dugula? Zelan baieztatzen familiako hizkuntza-transmisioa ziurtatzen ari gara?

Ikastetxe bakoitzak bere ezagutza eta erabilera indizeak ditu, hona hemen, berbarako, Lekandape ikastetxeko Branka bidez egindako diagnosiaren emaitzak (Isasi & Erriondo, 2008). Eskualdeko ikastetxe gehienek berdin antzekoak dituzte, Arratiako herri guztietako egoera sozio-linguistikoa uniformea ez den arren (Zalbide, 2007).

Azter ditzagun, lehenik eta behin, hezkuntza komunitate honetako kideen banan-banako esparruak. Lekandape ikastetxeko populazioaren %90k daki eta %78an darabil euskara. Jakite maila eta erabileraren artean 12 puntuko aldea dago. Ba al dauka eraginik normalizazioak ikastetxe horretan? Erantzuna, zalantzarik gabe, baiezkoa da (Erriondo & Isasi, 2009, 2011). Egin diren kale erabileraren neurketetan frogatu da euskararen ezagutza eta erabileraren artean, zoriz eta batez beste, 20 puntuko aldea dagoela ezagutzaren alde.

**6. irudia: Lekandape ikastetxean egindako Branka diagnosiaren emaitzen zatia**

<b>Emaitzak</b>			
<b>AGERPENA ETA EZAGUTZA</b>	<b>89.86</b>	<b>ERABILERA</b>	<b>77.57</b>
<b>Estamentuak</b>	<b>94.32</b>	<b>Ahozkoa</b>	<b>73.07</b>
Zuzendaritza	100.00	Zuzendaritza	62.96
Irakasleak	100.00	Irakasleak	100.00
Admin. eta zerbitzuetako langileak	78.75	Langileak	52.17
Ikasleak	64.35	Ikasleak	65.74
Gurasoak	64.48	Gurasoak	33.33
		Ingurunea	90.00
<b>Liburutegia</b>	<b>56.09</b>	<b>Idatzizkoa</b>	<b>91.07</b>
Antolaketa	90.00	Ikastetxeko txostenak	100.00
Fondoa	33.48	Aktak	100.00
		Inprimakiak/agiriak	75.00
<b>Paisaia</b>	<b>100.00</b>	Bulegoa	71.43
		Posta	100.00
<b>Udalerrria</b>	<b>70.20</b>	Baliabide materialak	100.00

Hau da, euskararen indarberritze planik gabe ezagutza eta erabileraren artean, gehienetan, 20 puntuko aldea, gutxi gora behera, egoten dela. Demagun herri batean biztanleriaren %20k dakiela euskara, bada, herri horretako erabilera indizea 0tik oso hurbil egongo litzateke. Araka ditzagun sakonago diagnosiaren emaitzak ikastetxe honi buruz arestian egin dugun baieztapena zertan oinarritzen den ikusi ahal izateko.

Zuzendaritzako kide guztiek dakite euskara. Hau da, ahoz zein idatziz erabiltzeko gaitasuna dute, beti ez dute horretarako aukera, ordea; sarri, aurrez aurre daukaten solaskidea ez da euskaraz jarduteko gai, horregatik zuzendaritzakoei dagokie euren jarduna solaskidearen gaitasunetara egokitzea. Irakasleen artean, berriz, denak dakite eta euren jardun osoa euskaraz aurrera daramate.

**Zelan ziurtatu hizkuntzaren erregistro guztietan hitzun gaituak garela? Zelan landu eskolaz kanpoko jardueretan ere kalitatezko euskara, euskara ona esaten zaion hori, darabilgula? Zelan bermatu bertako euskalkian ere ahoz zein idatziz komunikatzeko gai garela? Zelan segurtatu gure herrietako hizkuntza-aldakeretan gordetzen den kultura-altxorra bizirik mantentzen dugula? Zelan baieztatu familiako hizkuntza-transmisioa ziurtatzen ari garela?**

**Emaiza horren  
azpian etxeko  
hizkuntza ez  
baloratzearen  
motiboa egon  
daiteke ere; urte  
askoan bizi izan  
dugu jardun-  
gune batzuetan –  
familian, auzoan  
eta lagunartean-  
euskaraz gustura  
aritu arren  
garrantzi  
handiko zeregin  
orok gaztelania  
eskatzen zuela  
nahitaez.**

Langileen artean %79k daki eta erabili %52an darabil; zuzendaritzako kideek bezala, hauek ere dakitena baino gutxiago darabilte. Ikasleen kasuan, berriz, %64k dakar etxetik euskara, D ereduaren murgilduta daude eta %66an darabilte. Azkenik, gurasoen artean %64k daki euskaraz eta %33k darabil ikastetxearekin harremanetarako. Bestela esanda, guraso euskaldunen erdiek darabilte euskara. Bukatzeko, ikastetxea kokatuta dagoen ingurumariko egoerari erreparatzen diogunean, biztanleriaren %70k euskaraz dakiela aitortzen du (Iturria [www.eustat.es](http://www.eustat.es)).

Emaiza horiek, euren osotasunean eta orokorrean hartuta, onak dira, behinik behin beste testuinguru soziolinguistiko bateko ikastetxe batek lortzen dituenekin konparatuko bagenitu. Demagun, Sestao edo Barakaldo, Gasteiz edo Etxebarriko ikastetxe batek lortutako emaitzekin parez pare erkatzen ditugula, Lekandapen gehiena eginda dagoela, zeregin handirik ez dela gelditzen pentsa genezake, eta, horixe bera entzuten dugu sarri. Emaitzak, ordea, ez dira bi ikastetxeen artean konparagarriak baldin eta beste hainbat aldagai berdinak ez badira, eta ikastetxearen kokagune soziolinguistikoa da lokailu horien artean garrantzitsuenetarikoa bat.

Aurreko emaitzen irakurketa une batez alboratu, eta, azter dezagun apurtxo bat sakonago testuingurua. Bizkaiko inguru hau, Arratia, bertako herri guztien euskalduntasun maila berdina ez bada ere, euskararen arnagune gutxietariko bat da (Zalbide, 2009), baldintza hori kontuan hartu behar dugu ikastetxeetako egoerak aztertzean eta baita hizkuntza-planak diseinatzean ere. Gure herrietan eta ikastetxeetan euskara “*etxeko jaun ta jabe*” balitz, ikastetxeetako diagnosietan eta diseinatzen ditugun hizkuntza-planetan, izaera/egoera horrek isla izan beharko luke. Gure eginkizunek ezinbestean hartu beharko lukete kontuan egoera hori, eta, beste inguru batzuetako ikastetxeetan ezinkizunak direnak gurean ardatz izango liriteke. Hori bera da eta horrek berak izan beharko luke eskualde honek Ulibarri Programari egiten dion ekarpena.

Arratian, euskara erabili badarabilgu. Baina, noiz, zelan eta zertarako darabilgu euskara guk? Hemen, Euskal Herri osoan bezala, ia-ia euskaldun guztiok elebidunak gara, euskaraz eta erdaraz aritzeko kapazak gara eta horrez gain gutariko askok beste atzerriko hizkuntza bat edo bi dakizki. Zelan kudeatzen dugu euskaldunok gure elebitasuna edo eleaniztasuna? Zein jardun-gune<sup>i</sup> –etxean eta familian, auzoan eta kalean, kirola eta aisialdirako, eskolan, lantegian, prentsa-irradi-telebistan, telefonoz-internetez-txateoan, administrazio eta finantza-erakundeekin– zein hizkuntzatan egiten dugu?

Goazen, berriz ere, Lekandape ikastetxean lortutako emaitzetara, eta, azter ditzagun ezagutza eta erabileraren arteko aldeak. Zuzendaritzan 37 puntuko aldea dagoela ikusi dugu. Ezen aurretik, 37 puntuko alde hori ondo neurtuta dagoela ziurtatu beharko genuke, eta, horrela dela ikusita, zergatik gertatzen den alde hori miatu beharko genuke. Esaterako, zuzendaritzako zereginiek zein mintzajardun mota eskatzen dituzten eta zeintzuk egiten diren euskaraz eta zeintzuk erdaraz:

- Solaskidearen arabera: *formalak*, aurrez aurre ikuskaria, klaustroa, fisikako gaia gelan azaltzean edo guraso-bilera batean, berbarako; *informalak* ikasle talde batekin edo lankideekin atsedendian; edo *intimoak* konfiantzazko giroan, lagun artean, txutxu-mutxuka gaudenetan.
- Atazaren arabera: *berbazkoak*, ahoz azalpenak edo argibideak ematen ditugunean; *irakurritakoak*, iturri ezberdinetatik etorritako dokumentuen lanketan ari garenean eta *idatzitakoak*, esaterako, geuk gurasoei oharra, administrazioa dokumentua edota barne erabilerarako akta bat osatzen dugunean.

Honenbestez, erabiltzen dugun hizkuntza, aldaera edo estiloa, sarri askotan, geu eta gure solaskidearen artean aukeratutakoa, negoziatutakoa eta erabakitakoa izaten da; mezua igorri eta jasotzen dutenen arteko hautua.

Lekandape ikastetxeko gurasoen ezagutza eta erabileraren artean 31 puntuko aldea dago. Emaitza honen zergatia ulertzen ahaleginduko bagina, behar bada ikusiko genuke gurasoek ikastetxearekin harremanetarako erdarara jotzen dutela etxetik euskaldunak izanik alfabetatu gabeak direlako, idatzizko harreman guztiak erdaraz sortzen dituztelako, edota ahozko harremanetan, euskalkia edo Arratiera erabiltzeko gai direlako baina ez, ordea, erregistro formalean aritzeko. Emaitza horren azpian etxeko hizkuntza ez baloratzearen motiboa egon daiteke ere; urte askoan bizi izan dugu jardun-gune batzuetan –familian, auzoan eta lagunartean- euskaraz gustura aritu arren garrantzi handiko zeregin orok gaztelania eskatzen zuela nahitaez: medikutan, diru kontuetan, administrazioarekiko harremanetan. Bestela esanda, jarduera intimoetarako euskara erabili arren, jarduera publikoetarako erdarara jotzea derrigorrezkoa dela. Ideia horrek oraindik ere gure barruan darrai.

Ikasleak izaten dira gure plan, proiektu eta ekimenen xede nagusia. Horregatik ikasleen jardunari arreta bezeria eskaintzen diogu eta ahalik eta sakonen aztertzen dugu. Alde batetik ikastetxean bertan, euren ge-



---

**Hauxe bera ikusten ari gara Arratiako herri gehienetan: herriko biztanleriaren ehuneko handia euskalduna izan arren, etxea eta familiako giroan, auzune eta kalean, kirolean eta aisialdian euskararen erabilerak beherako joera duela erabat.**

**Gure eskoletan erabilera indize batzuk lortuta daudenean aurrera egitea askoz zailago bihurtzen da eta horretan jarduteko ahalegin, estrategia eta bitarteko bereziak behar izaten ditugu.**

lakideekin egunean zehar euskara-erdararen erabilera neurtzen dugu, *Mintzagrama* deritzon galdetegiaren bidez (Isasi et al., 2009). Hona hemen emaitzen bi adibide :

**7. Irudia. 20 ikasle dituen talde bateko mintzagramak**



Aurreko irudietan dakusagunez, ikasleen %64 etxetik euskalduna da, D erduan murgilduta dabil eta gelako kideekin aritzeko euskara eta erdaraz baliatzen da. Mintzagramak ematen ditu gelako euskara eta erdararen erabilera indize orokorrak eta nork nor aukeratzeko duen euskaraz edo erdaraz egiteko.

Ikasleen esparruarekin jarraituz, egunez eskolan eta eskolaz kanpo egiten duten euskara-erdaren erabilera zehatzago aztertzeko, *Gela-argazki* deritzon galdetegia erabili ohi dugu, eta, gela bakoitzeko honelako emaitzak jasotzen ditugu.

**8. irudia: Lekandape ikastetxeko LHko 2. mailako ikasleen gela-argazkiko datuen irakurketa**

**Ikasgela: LH2---**  
**Ikastetxea:**

ALDAKUNTZA-ITURRIA		JARDUN_GUNEA + ROL-HARREMANAK															
ADIERAZPENA	HEDABIDEA	1 familia			2 auzoa			3 eskola				4 komunikazioa				5 kirola	6 eliza
		1.1	1.2	1.3	2.1	2.2	2.3	3.1	3.2	3.3	3.4	4.1	4.2	4.3	4.4	5.1	6.1
HITZ EGITEA	Egitea	4.36	4.71	-	4.00	3.71	2.57	4.71	5.00	4.86	4.86	3.57	2.00	-	-	4.14	4.33
	Jasotzea	4.07	4.43	2.00	3.57	3.57	2.29	4.43	5.00	4.43	5.00	3.57	2.00	3.25	3.26	4.14	4.33
IRAKURTZEA	Egitea							D				2.00					
	Jasotzea							D				2.00		3.20		4.33	
IDAZTEA	Egitea							D				2.00					
	Jasotzea							D				2.00					

**9. irudia: Lekandape ikastetxeko DBHko ikasleen gela-argazkiko datuen irakurketa**

**DBH2-A ikasgelaren gela-argazkia**

**Ikasgela: DBH2-A**  
**Ikastetxea:**

ALDAKUNTZA-ITURRIA		JARDUN_GUNEA + ROL-HARREMANAK															
ADIERAZPENA	HEDABIDEA	1 familia			2 auzoa			3 eskola				4 komunikazioa				5 kirola	6 eliza
		1.1	1.2	1.3	2.1	2.2	2.3	3.1	3.2	3.3	3.4	4.1	4.2	4.3	4.4	5.1	6.1
HITZ EGITEA	Egitea	3.05	4.29	-	4.15	4.05	3.55	4.30	4.80	4.05	4.74	3.60	2.32	-	-	3.40	4.35
	Jasotzea	2.95	4.29	2.26	4.05	3.80	2.80	4.45	4.65	4.00	4.79	3.60	2.32	2.82	2.65	3.40	4.35
IRAKURTZEA	Egitea							D				2.32					
	Jasotzea							D				2.32		3.35		4.35	
IDAZTEA	Egitea							D				2.32					
	Jasotzea							D				2.32					

**29 erreferentzia zenbakiaren gela-argazkia**

**Erreferentzia-zenbakia: 29. Adin-tartea: DBH2. Gelaren eredia: D eredia. Udalaren euskaltasun maila: 4.**  
**Ikasgela kopurua: 44**  
**Ikasle kopurua: 708**

Goiko irudietan ikasleen informazio ugari biltzen da. Hemen datu horietako batzuei baino ez diegu erreferentziarik egingo, oin-oharretan zenbaki guztiak ulertzeko azalpenak (Zalbide, 2009) sartu baitira. Emaitzak, 0 eta 5 bitarteko eskalan irakurtzen dira, non 0 zenbakiak erdararen erabateko nagusitasuna adierazten duen eta 5k euskararen nagusitasuna. Irakurketa errazteko asmotan, koloreak ere erabili dira, berdea euskararen nagusitasuna adierazteko eta urdina erdararena.

Orain arte egin ditugun hainbat baieztapenen frogak goiko bi irudietan agertzen zaizkigu.



**Arratiako herriei  
dagokie gurasoen  
transmisioa  
ziurtatzea eta  
etxeke hizkuntza  
bere horretan  
ume eta gazteei  
luzatzea, eta  
helburu horrekin  
egiten ari dira  
ikastetxeak  
Umeen zentzune  
etxean entzune  
proiektua, edota  
antzeko beste  
ekimen asko.  
Zer esanik ez,  
gazteen arteko  
hizkera,  
erregistro  
askoren lanketa  
edota hitanoaren  
erabilera.**

Lekandape ikastetxea kokatuta dagoen herrian, gainera, %70ak da-kiela aitortu arren, kale erabileraren neurketen arabera, biztanleriaren %38k darabil euskara, beraz, lehen aipatu dugun 20 puntuko batez besteko aldea nabarmen gainditzen da herri horretan. Hauxe bera ikusten ari gara Arratiako herri gehienetan: herriko biztanleriaren ehuneko handia euskalduna izan arren, etxea eta familiako giroan, auzune eta kalean, kirolean eta aisialdian euskararen erabilerak beherako joera duela erabat.

Aurreko erronka horren errebasoan ikusitakoak zuzen garamatza hurrengo erronkara.

**7. Isolamenduaren eta harrotasunaren erronka.** *“Gu ondo egiten ari gara/Beraiek dira ulertzen ez digutenak.”* Arratia bezalako euskararen arnaguneetan, euskararen gaixoa larria da, aurreko tauletan ikusi dugun legez, baina esperantza ez dugu galdu. Euskararen erabilera ikastetxe barruan proportzio handietan ziurtatu dugu. Halere, euskarak mendeetan bereak izan dituen esparruak, astiro-astiro, galtzen doa, hala nola, familia, etxe-giroa, auzoa edo lagunartea. Arratian ume, gazte eta helduen artean euskara eta erdarak biak daude uneoro gure ezpainetan. Lehen ez bezala, eskoletan etxeetan eta auzoetan baino euskara gehiago egiten da gaur. Helduok izan beharko genuke ume eta gazteen eredu, baina badirudi helduon arteko solasaldietan erdarara jotzen dugula sarri, eta, etxe eta familiako bazterrak ere erdaraz bizi ditugula. Etxetik kanpo, auzoan eta kalean, gero eta ezezagun gehiagorekin aurkitzen gara, eta, jakina, hauekin ere erdara da nagusi. Eta zer esanik ez telebista, irrati edo interneten gabiltzanetan, horietan ia-ia erdara hutsean gabiltza.

#### 10. irudia: Umeen zentzune etxean entzune CDa



Gure eskoletan erabilera indize batzuk lortuta daudenean aurrera egitea askoz zailago bihurtzen da eta horretan jarduteko ahalegin, estrategia eta bitarteko bereziak behar izaten ditugu. Aurrerago esan denez, Arratiako ikastetxeei dagokie euskalkiaren inguruko jardunak, *Berbategie* proiektuaren inguruan egin direnak eta egingo direnen modukoak, *Begitu* aldizkariarekin elkarlanean egiten direnen parekoak edota AK37 estilokoak antolatzea eta egitea. Arratiako ikastetxeei dagokie bertako ondareaz ohartzea eta horretaz aritzea, *Mariren Erreinua* edo *Mariren Urratsen Atzetik* proiektuak bezalakoak landuz.

Arratiako herriei dagokie gurasoen transmisioa ziurtatzea eta etxeko hizkuntza bere horretan ume eta gazteei luzatzea, eta helburu horrekin egiten ari dira ikastetxeak *Umeen zentzune etxean entzune* proiektua, edota antzeko beste ekimen asko. Zer esanik ez, gazteen arteko hizkera, erregistro askoren lanketa edota hitanoaren erabilera; Arratia bezalako testuinguruetan erronka hauei aurre egin ezean, non bestela?

11. irudia: Gorbeialdea, Mariren urratsen atzetik ariketa liburua



**Euskararen erabilera bermatzearren erronka gutariko bakoitzarena eta denona da, horrexegatik gertatzen da sarri esaerak dioena, "Ugazaba askoren idia, goseak trageu". Ba al dago modurik idia bizirik eta indartsu mantentzeko?**

**Nekez egingo du  
eskolak modu  
esanguratsuan  
aurrera etxean,  
auzoan eta  
lagunartean  
euskarari ez  
bazaio eusten,  
esparru horietan  
ez bada eragiten.  
Edonola ere,  
horrek ez du  
kentzen, mugak  
ezagutuz eta  
tokian tokiko eta  
unean uneko  
aukerak ongi  
aztertuz, eskolak  
funtsezko  
zereginak izatea.**

Gurea bezalako inguru soziolinguistikoetan normalizazio proiektuek berebiziko garrantzia dute (Euskararen Aholku Batzordea, 2009); batetik, dagoen ezagutza eta erabilerrari tinko eusteko; bestetik, dagoen horrek emango diolako hizkuntza-plangintzari funtsezkoa duen behetik gorako indarra eta kemena, plangintza bizia eta sortzailea izan dadin; eta, azkenik, beste testuinguru soziolinguistikoetan ez bezala, hemen eta orain ezinbestekoa delako hezkuntzaz kanpoko beste eragileekin elkarlanean aritzea gure ikasleek jardun-gune eta rol-harreman guztietan euskara erabiltzeko gai izan daitezen. Helburu bateratuak eta norabide bereko xedeak ditugun gizarte eragileoi dagokigu gure arteko sareak sortzea eta mantentzea. Horrexetarako, sortu genuen 1999an Gorbeialdea lantalea, hain zuzen ere.

**8. Dagoen gobernu-egituraren erronka. “Non da honen arduraduna?”** Ikastetxeetan izendatu diren normalkuntza proiektuen arduradunek eta normalkuntza batzordeek ikastetxeekin lotura duten ekintzen ardura osoa hartzen dute, baina nori dagokio eskolaz kanpo gure ikasleek egin eta jasotzen dutenaren betebeharra? Nor izendatu kalean, auzoan edo kirolean umeen jarduna lantzeko eta zaintzeko arduradun? Nork eragin dezake familiako hizkuntza ohituretan?

Euskararen erabilera bermatzearen erronka gutariko bakoitzarena eta denona da, horrexegatik gertatzen da sarri esaerak dioena, “*Ugazaba askoren idia, goseak trageu*”. Ba al dago modurik idia bizirik eta indartsu mantentzeko? Badago inor idiari baba eta galtzua, ura eta belar freskoa emango dionik? Lehenago aipatu den legez, orain arte ikusi eta ikasi dugunak erakusten digu ikastetxeek, bakarrean, ezin dutela herri edo bailara bateko egoera soziolinguistikoa eraldatu, baina hezkuntzaz kanpoko beste erakunde eta eragile batzuekin elkarlanean aritzeak emaitza oparoak dakartza. Horretan dihardugu Arratiako ikastetxeek gure arteko gunez gain beste hainbat erakunde eta eragilerekin batera: familia eta etxeetan eragin nahian, merkataritza zein aisiarako guneak euskalduntzeko saiakeretan, kultur ondarea biltzen eta erakusten eta bertako euskaraz argitaratzen den aldizkaria etxe guztietara zabaltzen, besteak beste.

**9. Hedapenaren erronka.** Zer ikasi asko geratzen zaigu komunikazio edo hedapen-planen inguruan. Gabezi hau ezaguna da euskaldunen artean. Nolanahi ere, hori hala izan arren, azken urteotan konturatu gara hezkuntza-komunitatearen atxikimendua lortu nahi bada ezinbestekoa dela planen zabalkundea eta taldeen dinamizazioa aintzat hartzea. Horretarako, batez ere, hiru bide jorratu ditugu:

**Barrura begirako komunikazioa:** Ikastetxeetako ikasle, irakasle, guraso zein langile taldeak, urtez urte, aldatzen doaz. Gure planen lau urteko epean ikastetxeetako kideen %60, gutxi gorabehera, aldatzen zaigu tarte horretan. Horregatik, etorri berriak diren kideei planen zergatia, zentzua eta norabidea azaldu behar zaie, eta, euren ekarpenak planetan txertatu.

## 12. irudia: Arratiera tallera, 2011ko udazkenean egin dena



**Eskualdeari begira zabalkundea:** *Begituk*, bailara osoan zabaltzen den aldizkariak, zein herriz herri udalen laguntzez argitaratzen diren txosten eta liburuek itzelezko laguntza ematen digute. Ez gaude ohituta geure lana gorai patzen edo norberak egindakoa nasai eta lasai ingurukoekin konpartitzen. Horregatik eta horretarako da hain garrantzitsua lehen aipatu dugu eskualdeko ikastetxeen lan-taldea. Gure artean, berderen, bakoitzak bere ikastetxean egiten duenaren berri ematen diogu elkarri eta horri esker erraz hedatzen da herri batetik bestera. B06 Basauri-Galdakaoko Berritzeguneak urtero antolatzen dituen *Jardunbide egokiak* deritzon jardunaldietan ere, orain arte egindakoaren berri azaltzen dugu Nerbioialde eta Galdakaoko irakasleen aurrean.

**Euskal komunitate osoari egindako ekarpenaren zabalkundea:** Hedapena zenbat eta urrunago heldu, orduan eta zailagoa guretzat. Halere, ahalegintxo batzuk, behinik behin, egiten dihardugu: eskualdeko ikastetxeetan egindakoaren berri, gutxienez hiru bider, Ulibarri Programak antolatzen dituen *Eskola Hitzun Bila* jardunaldietan zabaldu dugu; azken urteotan Mendebalde Alkarteak antolatzen dituen jardunaldietan ere izaten dute gure ikastetxeetan egiten denaren berri; Diman antolatutuen *Herririk herri* jardunaldietan Euskal Herri osoko eta Europako

**Talde izaerari  
eusten diogu  
neurri operatibo  
egokia delako  
eginbehar guztiei  
aurre egin ahal  
izateko, baina,  
baita  
hizkuntzaren  
irakaskuntzarako  
jardun-esparru  
eta rol-harreman  
ugaritarako  
erabilera  
aukerak irekitzen  
dizkigulako;  
hala nola,  
ikasle-ikasle,  
irakasle-irakasle,  
ikasle-irakasle,  
guraso-ikasle,  
guraso-irakasle,  
besteak beste.**

hainbat herrialdeko jendea hurbildu zitzaigun; gure ikastetxe batzuk Europako beste herrialde batzuetako eskolekin harremanetan daudenez gero, urtero gure ekintzen berri daramate kanpora edota kanpokoak bisitan datozenean hemengo azaltzen diegu.

10. **Estrategia eta helburuaren erronka. Azkenik eta laburbilduz, “Norantz goaz? Zertarako gaude hemen?”**. Azkenik eta laburbilduz, lau urterik behin gure normalkuntza proiektuak berri beharrak hausnartara bultzatzen gaitu eta azken erronka honen galderei erantzutera eramaten gaitu. Guk, behintzat, badakigu zertan gabiltzan, baina horrek ez du esan gura, Arratian euskararen erabilera ziurtatzeko moduan gaudenik. Ireki dugun bide horri jarraitzeko, ezinbestekoa dugu mundu mailan dauden aditu eta esperientzien berri izatea, gure errealitatearen gainean egiten dugunaz sakon eta zintzo hausnartzea eta gizartearen erronkei sormenez erantzutea.

Jakin badakigu Fishmanen (1990, 1991) hitzei jarraituz, euskararen indarberritzean eskolak muga asko dituela. Hezkuntza bidez euskara indarberritzeko fedea beste uste baten isla dela: “hezkuntzak gizartearen gaitzak sendatzeko duen berezko balioaren fedearen isla” (1990:188). Bere esanetan, euskararen indarberritze prozesuaren ardatza ama-hizkuntzaren transmisioa da; hizkuntzaren indarberritze prozesuetako erdigunea etxean, auzoan eta hurbileko elkartean dago. Hortik abiatuz, eskola prozesu askoz zabalago eta konplexuagoa den zatia baino ez da. Nekez egingo du eskolak modu esanguratsuan aurrera etxean, auzoan eta lagunartean euskarari ez bazaio eusten, esparru horietan ez bada eragiten. Edonola ere, horrek ez du kentzen, mugak ezagutuz eta tokian tokiko eta unean uneko aukerak ongi aztertuz, eskolak funtsezko zereginak izatea. Izan ere, eskolak bereak dituen bi erremintaz balia daiteke: curriculum eta talde izaera.

Batetik, curriculumak agertzen dituen aukera guztiez baliatzen da ikastetxea hizkuntzaren ezaguera lantzeko. Bestetik, curriculumaren bidez eskolari dagokio euskararen ezaguera bertako kulturaren testuingurua lantzea (1/1993 Legearen 3. artikulua). Azkenik, talde izaerari eusten diogu neurri operatibo egokia delako eginbehar guztiei aurre egin ahal izateko, baina, baita hizkuntzaren irakaskuntzarako jardun-esparru eta rol-harreman ugaritarako erabilera aukerak irekitzen dizkigulako; hala nola, ikasle-ikasle, irakasle-irakasle, ikasle-irakasle, guraso-ikasle, guraso-irakasle, besteak beste.

Talde izaera horri esker ikastetxearen ingurumari osoan esku-hartzeko aukerak agertzen zaizkigu, eta, xedeaz eta aldiari aldiko testuin-

guruaren aukerez baliatuz, eskola-elkarteko kideen eta hizkuntzaren gizarteratzea eta integrazio bideak urratzen ditugu eskola orduz kanpo eta eskolaz kanpoko jardueren bidez.

Arnasgune izatearen beste betebeharrak bat, gainera, hauxe da: gure ikastetxeetan eta ikastetxeetatik kanpo egiten duguna beste guztien eskueran jarri, elkarlan, eredu, adibide edo laguntza modura.

Hurrengo lau ikasturteei begira, eta aurreko erronkan aipatu den luze-zabaleko hedapena egun ohikoak diren informazio eta komunikazioarako teknologiak erabiliz egitea komeni dela jakinik (Euskararen Aholku Batzordea; 2009), apurka-apurka ari gara horretan ere; *Begitu* aldizkariak badauka bertsio digitala [www.begitu.org](http://www.begitu.org) eta gure ikasleek hor dute *Dunba* izeneko euren txokoa; Gorbeialde Alkartea oraintxe bertan ari da bertako ikastetxeentzako plataforma digitala eraikitzen; eskolak ari dira web gune, blog eta webquestak osatzen eta irekitzen.

**Daukagunari  
entsiz eta  
elkarlana  
indartuz sareak  
eraikitzen  
ahaleginduko  
gara hurrengo  
urteotan ere,  
organizazio eta  
eragile  
ezberdinen  
arteko gizarte-  
sareak eta sare  
birtualak, ahal  
den heinean  
bizirik  
diharduten  
euskararen  
erabilera  
esparruak  
babesteko eta  
dagoeneko  
zabaldutako  
esparru berriak  
indartzeko.**

**13. irudia: Arratiako eskola-agenda**



**14. irudia: Dunba atala, Begitu aldizkarian**



Laburbilduz beraz, daukagunari eutsiz eta elkarlana indartuz sareak eraikitzen ahaleginduko gara hurrengo urteotan ere, organizazio eta eragile ezberdinen arteko gizarte-sareak eta sare birtualak, ahal den heinean bizirik diharduten euskararen erabilera esparruak babesteko eta dagoeneko zabaldu diren esparru berriak indartzeko. Horri zuzenki lotuta ikusten dugu Ulibarri programak arnasguneetan kokatuta dauden ikastetxeentzat berariazko lan taldeak, bitartekoak edo neurri operati- boak bilatzea. Batetik, berez, txikiak izan ohi diren ikastetxeok progra- man jarraitzeko baliabideak eta berariaz diseinatutako planak eta aholku-gomendioak izan ditzaten, eta, bestetik, arnasguneetan kokatuta egonik, eta orain arte egin dutenez, euren ekarpenekin Ulibarri programa osoaren oxigeno-bolumena aberats dezaten. ●

## ERREFERENTZIAK

- Azurmendi M.J, Bachoc. E. & Zabaleta. F. (2001). Reversing Language Shift: The case of Basque. In J. H. Fishman (Ed.) *Can threatened lan- guages be saved?* (234-259). Clevedon: Multilingual Matters.
- Azurmendi M.J. & Martínez de Luna. I. (2006). *The Case of Basque: Past, Present and Future*. Donostia: Soziolinguistika Klusterra.
- Barrenetxea, U. (2010). Hizkuntza-plangintzekiko erresistentziak orga- nizatzearen II. Hausnartu Euskal Soziolinguistika Sariak. *Bat sozio- linguistika aldizkaria*, 74, 57-110.
- Bilbao, M. B. (2002). *Kultura Erreferenteak Oinarrizko Hezkuntzako Curricu- luman*. Euskal Herriko eskoletan. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Cenoz, J. (2009). *Towards Multilingual Education. Basque Educational Rese- arch from an International Perspective*. Bristol: Multilingual Matters.
- Cummins, J. (2000). *Language, Power and Pedagogy*. Bilingual Children in the Crossfire. Clevedon: Multilingual Matters.
- Cummins, J. (2009). Fundamental psycholinguistic and sociological principles underlying educational success for linguistic minority students. In T. Skutnabb-Kangas, R. Phillipson, A.K. Mohanty, & M. Panda (Ed.). *Social justice through multilingual education* (19-35). Bristol: Multilingual Matters.
- Esnaola, I. (2003). *Ahazkotasuna hezkuntzan abiatzeko gidaliburua*. Ulibarri Programa, 8. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zer- bitzu Nagusia.
- Erriondo, L., & Isasi, X. (2008). *Branka emaitzak: presentzia-erabilera taulak*. [http://static.ulibarri.info/branka\\_emaitzak\\_presentzia\\_erabilera.pdf](http://static.ulibarri.info/branka_emaitzak_presentzia_erabilera.pdf) (2011.09.06an agertukoa).
- Erriondo, L., & Isasi, X. (2009). *Mintzagrama: erabilera, analisiak eta inter- pretazioak*. Bilbao: Udako Euskal Unibertsitatea.

- Erriondo, L., & Isasi, X. (2011). *Ulibarri programa. Hedapena eta ezaugarri demolinguistikoak*. G06 Lasarteko Berritzegunean, 2011ko martxoaren 9an, egindako aurkezpena.
- Eusko Jaurlaritz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. (1994). *Curriculum Garapenerako Dekretua. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Eusko Jaurlaritz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. (2004). *Hizkuntzen Portfolio Europarra*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Eusko Jaurlaritz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. ISEI/IVEI. (2005a). *Pisa 2003 Ebaluazioaren Bigarren Txostena. Euskadiko Emaitzak*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Eusko Jaurlaritz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. ISEI/IVEI. (2005b). *Euskararen B2 maila derrigorrezko irakaskuntzaren amaieran (DBH-4)*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Eusko Jaurlaritz, Hezkuntza Unibertsitate eta Ikerketa Saila. (2007). *Herririk herri:euskararen lurra jorratzen. Eskola Hiztun Bila XI. Jardunaldia*. 4. CDa. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Eusko Jaurlaritz, Kultura Saila. (2009a). *2006. IV. Mapa soziolinguistikoa*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Euskararen Aholku Batzordea. Eusko Jaurlaritz, Kultura Saila (2009b). *Euskara 21. Itun berritu baterantz. Gogoeta irekiaren ondorengo txostena*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Fishman, J. (1990). Eskolaren Mugak Hizkuntza Biziberritzeko Saioan. In *Euskal Eskola Publikoaren Lehen Kongresua. I Tomoa* (181-188). Vitoria-Gasteiz. Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Fishman, J. (1991). *Reversing Language Shift*. Theoretical and Empirical Foundations of Assistance to Threatened Languages. Clevedon. Multilingual Matters.
- Grin, F. & Vaillancourt, F. (1999). *The cost-effectiveness evaluation of minority language policies: Case studies on Wales, Ireland and the Basque Country*. ECMI Monograph. Flensburg: European centre for Minority Issues.
- Hornberger, N.H., & Skilton-Sylvester, E. (2003). Revisiting the continua of biliteracy: international and critical perspectives. In N.H. Hornberger (Ed.). *Continua of biliteracy. An ecological framework for educational policy, reseach and practice in multilingual settings* (35-67). Clevedon: Multilingual Matters.
- Isasi, X. & Erriondo, L. (2009). *Neur-kareletik, hizkuntza egoeraren popatik brankara*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.



- Isasi, X. (2007). Euskararen erabileran kale. *Bat soziolinguistika aldizkaria*, 64, 119-121.
- Iztueta, P. (2000). *Hezkuntza, hizkuntza eta boterea*. Donostia: Utriusque Vasconiae.
- Iztueta, P. (2002). Euskal Curriculumari oskola kentzen. *Hik Hasi*, 71, 8-17.
- Merkator-Education. (2005). *The Basque language in education in Spain*. Basque Regional Dossier (2. ed.). Ljouwert-Leeuwarden: Mercator-Education.
- Perez-Urraza, K. (2007). *Ingurune hurbileko curriculum soziohistorikoa. Zerberio harana (1567-1967)*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Ruiz-Bikandi, U. (1997). Decisiones necesarias para la elaboración del proyecto lingüístico. *Textos de didáctica de la lengua y literatura*, 13, 9-24.
- Ruiz-Bikandi, U. (2000). La competencia comunicativa. In U. Ruiz Bikandi (Ed.). *Didáctica de la segunda lengua en educación infantil y primaria* (101-135). Madrid: Editorial Síntesis.
- Senge, P., Kleiner, A., Roberts, C., Ross, R., Roth, G., & Smith, B. (1999). *The dance of change*. New York: Doubleday.
- Skutnabb-Kangas, T. (1988). Multilingualism and the education of minority children. In T. Skutnabb-Kangas, & J. Cummins (Ed.). *Minority education. From shame to struggle* (9-45). Clevedon: Multilingual Matters.
- Skutnabb-Kangas, T., Phillipson, R., Mohanty, A. K., & Panda, M. (Eds.). (2009). *Social justice through multilingual education*. Bristol: Multilingual Matters.
- Søndergaard, B. (1993). The problem of pedagogy versus ideology: the case of a Danish-German bilingual school-type. In H. Baetens-Berardsmore (Ed.). *European models of bilingual education* (66-85). Clevedon: Multilingual Matters.
- Torres, J. (1991). *El curriculum oculto*. Madrid: Ediciones Morata.
- Zalbide, M. (2007). Euskararen legeak hogeita bost urte. Eskola alorreko bilakaera: Balioespen-saioa, in *Euskera*, 2007, 3, 52. liburukia (2. aldia).
- Zalbide, M. (2008). Arnasgunea: zenbait gogoeta txostena. Inprimatu gabea.
- Zalbide, M. (2009). Aurrez aurreko jardunaren lekua HINBE-saioetan. [http://www.erabili.com/zer\\_berri/muinetik/1247559905](http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1247559905)
- Zalbide, M. (2010). *Euskararen legeak hogeita bost urte. Eskola alorreko bilakaera: balioespen-saioa*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Zimmerman, B.J. (1997). Self-efficacy and educational development, In A. Bandura (Ed.). *Self-efficacy in changing societies* (202-231). Cambridge: Cambridge University Press.